

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatuaren 4735/2024 FORU AGINDUA, abuztuaren 8koa. Horren bidez, Maruri-Jatabeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari dagokion ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egiteko prozeduran ingurumen azterketa estrategikoa egitea ebatzi da.

ERREF.: EAE-2407

1.- AURREKARIAK.

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 6. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babesteko abenduaren 9ko 10/2021 Lege Orokorrak II.A eranskinean xedatutakoarekin bat, Maruri-Jatabeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta behar du.

Maruri-Jatabeko Udalak 2024ko maiatzaren 15ean bidali zuen udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta hasteko eskaera. Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau bidali zen:

- Hasierako dokumentu estrategikoa, 2024ko otsailekoa. Kartografia barne.
- Maruri-Jatabeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapena, 2024ko otsailekoa. Kartografia barne.
- Planen eta programen ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskina.

Informazio hori ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko erabili da, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentu hau egiteko ere, 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta 10/2021 Legearen 68. artikuluan adierazten denarekin bat etorritz.

Kontsultetarako aldia amaitu ondoren Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak irismeneko dokumentu hau egin behar du, 10/2021 Legearen 7. artikulua ematen dizkion ahalmenez baliatuz, Maruri-Jatabeko HAPOren ingurumen eraginak zehazteko ez beste ezertarako.

ORDEN FORAL 4735/2024, de 8 de agosto, de la diputada foral de Medio Natural y Agricultura por la que se resuelve formular el Documento de alcance del Estudio ambiental estratégico en el procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria del Plan General de Ordenación Urbana de Maruri-Jatabe.

REF.: EAE-2407

1.- ANTECEDENTES.

De conformidad con lo establecido en el artículo 6 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental y en el anexo II.A de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, el Plan General de Ordenación Urbana de Maruri-Jatabe está sometido a evaluación ambiental estratégica ordinaria.

El 15 de mayo de 2024 el Ayuntamiento de Maruri-Jatabe remite la solicitud de inicio de la evaluación ambiental estratégica ordinaria del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de su municipio. Junto a la solicitud, se remite la siguiente documentación:

- Documento inicial estratégico, fechado en febrero de 2024. Incluye cartografía.
- Avance del Plan General de Ordenación Urbana de Maruri-Jatabe, fechado en febrero de 2024. Incluye cartografía.
- Anexo V del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.

Dicha información ha sido utilizada para efectuar las consultas a las Administraciones Públicas afectadas y a las personas interesadas, así como para elaborar este Documento de alcance del Estudio ambiental estratégico, todo ello en virtud de lo señalado en los artículos 19 de la Ley 21/2013 y 68 de la Ley 10/2021.

Una vez concluido el plazo de consulta, corresponde al Departamento Foral de Medio Natural y Agricultura emitir el presente Documento de alcance en el ejercicio de las atribuciones conferidas por el artículo 7 de la Ley 10/2021, a los solos efectos ambientales y en relación con el PGOU de Maruri-Jatabe.



2.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN PROPOSAMENAK


Udalerriko oraingo egoeraren diagnostikoa egin ondoren, irismeneko memoriak zenbait aukera sartzen ditu udalerriko hiri-garapenaren eredua baldintzatzen duen oinarritzko elementu bakoitzerako. Hala, besteak beste, sistema orokorrak, bizitegirako hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak definitzen dira. Gero, aukera horiek elkarrekin konbinatzen dira, hiru aukeratan. Hiri-lurzoruaren kasuan, bi egikaritze-unitate planteatzen dira: U-1 eta 2 egikaritze-unitateak, 6 eta 2 etxebizitzarekin, hurrenez hurren. Lurzoru urbanizagarriko, sei sektore proposatzen dira, kontuan hartutako hiru aukeretako bakoitzean konbinatuta, azalera eta etxebizitza kopuru desberdinak dauzkatenak, baina horietako bakoitzerako oso antzekoak. Hiri-lurzorurako eta lurzoru urbanizagarriko egiten diren proposamenak konbinatuta, honako bizitegi-kuantifikazio hauek lortzen dira aukera hauetako bakoitzerako: 153 lehenengorako, 151 bigarrenerako eta 142 hirugarrenerako.

1 aukeran etxebizitza isolatu eta kolektiboan garatzea planteatzen da, lehendik dagoen hiri-bilbea osatuta, bide-loturak hobetuta eta Larreta auzoa hirigunearekin lotuta. Era berean, hiri hazkundeari jarraipena ematen zaio, Erdigune auzoko mendebaldeko mugatik Sakalde auzoraino. 2. aukeran hazkunde trinkoagoa proposatzen da, egungo hiri-lurzoruaren inguruko hazkunde berriak bilduz eta Larreta auzoa lotzeko jarraitutasuna emanez. 3 aukeran, etxebizitza isolatu eta kolektiboan garatzea planteatzen da, lehendik dagoen hiri-bilbea osatuta, bide-loturak hobetuta eta Larreta auzoa hirigunearekin lotuta. Era berean, Mungia/Mungialdeko LPPn jasotako hiri-garapena osatzen da, eta hiri hazkundeari jarraipena ematen zaio, Erdigune auzoko mendebaldeko mugatik Sakalde auzora arte.

2.- PROPUESTAS DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA.

Tras efectuar el diagnóstico del estado actual del municipio, la memoria del Avance incluye una serie de alternativas para cada uno de los elementos básicos que condicionan el modelo de desarrollo urbano del municipio, entre los que se definen los sistemas generales, los suelos urbanos residenciales y los urbanizables. Luego estas alternativas se van combinado entre sí en tres alternativas diferentes. En el caso del suelo urbano, se plantean dos unidades de ejecución, las UE -1 y 2, con 6 y 2 viviendas respectivamente. Para el suelo urbanizable, se proponen hasta seis sectores diferentes que se van combinado en cada una de las tres alternativas consideradas, con superficies y número de viviendas diferentes pero muy similares para cada una de ellas. De la combinación de las distintas propuestas que se hacen para el suelo urbano y urbanizable, se obtienen las siguientes cuantificaciones residenciales para cada una de las siguientes alternativas: 153 para la uno, 151 para la dos y 142 para la tres.

En la alternativa 1 se plantea un desarrollo en vivienda aislada y colectiva completando la trama urbana existente, mejorando las conexiones viarias y uniendo el barrio Larreta con el centro urbano. Asimismo, se da continuidad al crecimiento urbano desde el límite oeste del barrio Erdigune hasta el barrio Sakalde. En la alternativa 2 se plantea un crecimiento más compacto, aglutinando los nuevos crecimientos entorno al suelo urbano actual, y dándole continuidad para conectar el Barrio Larreta. En el caso de la alternativa 3, se plantea un desarrollo en vivienda aislada y colectiva completando la trama urbana existente, mejorando las conexiones viarias y uniendo el barrio Larreta con el núcleo urbano. Asimismo, se completa el desarrollo urbano contemplado en el PTP de Mungia/Mungialdea, dando continuidad al crecimiento urbano desde el límite oeste del barrio Erdigune hasta el barrio Sakalde.



Egia esan, 2. aukera asko hurbiltzen da 0 aukerara; izan ere, proposatzen dituen lurzoruz urbanizagarriak eta gaur indarrean dauden arau subsidiarioetan daudenak ia berdina dira, ekialdean dagoen eremu bat izan ezik. Bestalde, 3. aukerak egungo SAPUR 2aren zati garrantzitsu bat desklasifikatzea eta egungo hirigunearen eta BI-2120aren artean dauden lurzoruz urbanizaezinak birsailkatzea ekarriko luke.

Realmente la alternativa 2 se aproxima mucho a la alternativa 0, puesto que los suelos urbanizables que propone son prácticamente idénticos a los que actualmente están incluidos en las Normas Subsidiarias vigentes, a excepción de un ámbito situado en la parte oriental. Por su parte, la alternativa 3 supondría la desklasificación de un parte importante del actual SAPUR 2 y la reclasificación de suelos no urbanizables situados entre el actual casco urbano y la BI-2120.



Jarduera ekonomikoei dagokienez, gaur egun ez dago erabilera horretarako kalifikatutako lurzorurik, eta ez da kokagune berririk planteatzen. Ekipamenduetarako eta aparkalekuetarako gunerik ere ez da aurreikusten, ez baita gabeziarik ikusten, eta, aparkalekuen kasuan, nahikoa dira sektore berrien garapenarekin sortuko direnak.

Bideei eta komunikazioei dagokienez, ez da bide-komunikazioko sistema orokor berririk egingo, baina bide eta kale berriak garatuko dira sektore urbanizagarriaren barruan.

Lurzoru urbanizaezinerako, honako kategoria hauek planteatzen dira: Babes berezia (bi azpitalderekin: Europar Batasunaren intereseko lehenetsuneko habitatak eta espezie autoktonoen basoak); ingurumena, nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala hobetzeko eremuak; basoa eta larre menditarrak (bi azpikategoriarekin: basoa eta basoa-mendi mehatza); azaleko urak babesteko eremuak. Era berean, HAPOren irismeneko dokumentuak honako baldintzatzaile gainjarri hauei erreparatzen die: Uholde-arriskua duten eremuak; eremu higagarriak; interes hidrogeologikoko eremuak; kutsatuta egon daitezkeen lurzorua; faunaren intereseko eremuak: bisoi europarraren interes bereziko eremua; natura-intereseko gunek: Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekia (Armintza-Bakio); erabilera publikoko mendiak.

Landaguneei dagokienez, Billabasoko gunea baino ez da hartzen kontuan.

3.- EGINDAKO KONTSULTAK.

Honako erakunde eta entitate hauei egin zaie kontsulta, aurretiko kontsulen izapidean, 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta 10/2021 Legearen 68. artikuluan ezarri bezala:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zerbitzua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako Atala.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Plangintzako Atala.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasuneko Atala.

En cuanto a las actividades económicas, actualmente no hay suelo calificado para este uso y tampoco se plantean nuevos emplazamientos. Tampoco se prevé ninguna zona para equipamientos ni para aparcamientos al no observarse carencias, siendo suficiente, en el caso de los aparcamientos, los que se generen con el desarrollo de los nuevos sectores.

En cuanto a la vialidad y las comunicaciones, no se realizarán nuevos sistemas generales de comunicación viaria, aunque sí se desarrollarán nuevas vías y calles dentro del sector urbanizable.

Para el suelo no urbanizable, se plantean las siguientes categorías: Especial Protección (con dos subgrupos, Hábitats de Interés Comunitario Prioritarios y Bosques de especies autóctonas); Áreas de Mejora Ambiental, Agroganadera y Campiña; Forestal y Pastos Montanos (con dos subcategorías: Forestal y Forestal-Monte Ralo); Áreas de Protección de Aguas Superficiales. Asimismo, el Avance del PGOU contempla los siguientes condicionantes superpuestos: Áreas con riesgo de inundación; Áreas erosionables; Zonas de interés hidrogeológico; Suelos potencialmente contaminados; Áreas de interés faunístico: área de interés especial del visón europeo; Espacios de interés naturalístico: Catálogo Abierto de Espacios Naturales Relevantes (Armintza-Bakio); Montes de Utilidad Pública.

En cuanto a los núcleos rurales, se considera únicamente el núcleo de Billabaso.

3.- CONSULTAS REALIZADAS.

Los siguientes organismos y entidades han sido consultados durante el trámite de consultas previas establecido en el artículo 19 de la Ley 21/2013 y en el artículo 68 de la Ley 10/2021:

- Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Servicio de Fauna Cinagética y Pesca de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Servicio Agrícola de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Servicio de Montes de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Sección de Ordenación Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Sección del Planeamiento Municipal de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Sección de Sostenibilidad Ambiental de la Diputación Foral de Bizkaia.



- Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren Ingurumenaren Iraunkortasunerako Atala.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioen Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Mugikortasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Bizkaiko Osasunaren Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- URA, Uraren Euskal Agentzia.
- EVE, Energiaren Euskal Erakundea.
- Lemoizko Udala.
- Bakioko Udala.
- Mungiako Udala.
- Gatikako Udala.
- Red Eléctrica de España.
- Bizkaiko Basogintza Elkartea.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Ekologistak Martxan elkarte.
- EHNE.
- ENBA.
- Dirección General de Innovación y Gestión Viaria de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Sección de Sostenibilidad Ambiental del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Movilidad de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.
- Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.
- Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.
- Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco.
- Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.
- Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.
- Delegación Territorial de Salud de Bizkaia del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.
- Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas del Gobierno Vasco.
- URA, Agencia Vasca del Agua.
- EVE, Ente Vasco de la Energía.
- Ayuntamiento de Lemoiz.
- Ayuntamiento de Bakio.
- Ayuntamiento de Mungia.
- Ayuntamiento de Gatika.
- Red Eléctrica de España.
- Asociación de Forestalistas de Bizkaia.
- Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia.
- IHOBE, Sociedad Pública de Gestión Ambiental.
- Asociación Ekologistak Martxan.
- EHNE.
- ENBA.



- Uribe Butroeko Zerbitzuen Mankomunitatea.

- Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusia. Espainiako Gobernuko Garraio Ministerioa.

- Azpiegiturak SAU.

- Interbiak

- Jatabe Nekazal Kultur Elkartea.

- Erretiratuen eta Pentsiodunen Jatabe Mendi Elkartea.

- Bizkaiko Mendizale Federazioa.

- Mancomunidad de Servicios Uribe Butroe

- Dirección General de Aviación Civil. Ministerio de Transportes del Gobierno de España.

- Azpiegiturak, S.A.U.

- Interbiak.

- Jatabe Nekazal Kultur Elkartea.

- Asociación Jatabe Mendi de Jubilados y Pensionistas.

- Bizkaiko Mendizale Federazioa.

21/2013 Legearen 22. artikulua dioenari jarraiki, organo substantiboak eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin beharko die jendaurreko informazioaren eta kontsulten ondorengo fasean, eta kontsultatu beharrekoak, gutxienez, ingurumen-organok alde aurreko kontsulten fasean eta ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazteko fasean kontsultatutakoak izan beharko dira, hau da, lehen identifikatutakoak.

Era berean, jende interesduna identifikatzeko xedez, planaren dokumentazio eskuragarria Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean (<http://www.bizkaia.eus/ebaluazioa>) argitaratu da eta jendaurrean jartze hori hedapen zabaleko bi egunkaritan iragarri da. Gainera, iragarkia argitaratu da Bizkaiko Foru Aldundiko BizkaiUP gailu mugikorretarako aplikazioan.

Ezarritako epea amaituta, plan orokorra eta bere ingurumen azterketa estrategikoa egitean kontuan hartu beharko diren erantzun hauek jaso dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ondareko Zerbitzua.

Izaera arkitektoniko eta arkeologikoko babesa duen ondasunik ez dagoela adierazten du. Jakinarazi du Maruri-Jataben dagoela Bilboko Burdin Hesiaren eta Defentsen Ingeles Lerroa (Araba eta Bizkaia), abenduaren 26ko 195/2018 Dekretuaren bidez Kultura Ondasun izendatua, Monumentu Multzo kategoriarekin. Era berean, udalerrian ustezko arkeologia-eremu izendatutako hainbat gune daude. Adierazi du biak (monumentu-multzoa eta balizko arkeologia-eremuak) txostena jaso behar duen eremutik kanpo geratzen direla.

Según señala el artículo 22 de la Ley 21/2013, las Administraciones Públicas afectadas y las personas interesadas que habrán de ser consultadas por el órgano sustantivo en la posterior fase de información pública y consultas, habrán de ser al menos las consultadas por el órgano ambiental en la fase de consultas previas y de determinación del alcance del Estudio ambiental estratégico, que han sido las anteriormente identificadas.

Asimismo, con el objetivo de identificar al público interesado, la documentación disponible del plan ha sido expuesta en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia (<http://www.bizkaia.eus/evaluacion>) y su exposición ha sido anunciada en dos periódicos de amplia tirada. También se ha publicado el anuncio en la aplicación para dispositivos móviles BizkaiUP de la Diputación Foral de Bizkaia.

Finalizado el plazo establecido, se han recibido las siguientes respuestas, que deberán ser consideradas en la elaboración del Plan General y en su Estudio ambiental estratégico:

- Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

Señala la inexistencia de bienes de protección de carácter arquitectónico y arqueológico. Informa que en Maruri-Jatabe se localiza la denominada Línea Inglesa del Cinturón de Hierro y defensas de Bilbao (Álava y Bizkaia) declarado Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental por el Decreto 195/2018, de 26 de diciembre. Asimismo, existen en el municipio varias zonas declaradas de Presunción Arqueológica. Señala que ambas (Conjunto Monumental y Zonas de Presunción Arqueológica) quedan fuera del ámbito sujeto a información.



- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

Adierazi du lurzoru urbanizaezinaren kategoria bakoitzean sartu beharreko erabileren araubideak bat etorri beharko duela Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean (LPS) adierazitakoarekin, eta berariaz jaso beharko direla balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuei eta landazabalaritza lotutako araudia eta erabilera publikoko mendien eta mendi babesleen izaera arauemailea. Jakinarazi du 1. eta 3. bizitegi-garapeneko aukerak Balio Estrategiko Handiko (BEH) nekazaritza-lurzoruak okupatzea dakartela, Nekazaritza eta Basogintzaren LPSaren arabera, zehazki 34 431 m² eta 55 180 m², hurrenez hurren. Hori dela eta, gogora ekarri du Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legean adierazitakoa, mota horretako lurzoruen izaera estrategikoari eta gizarte-intereseko ondasun izateari dagokionez. Jakinarazi du egun indarrean dagoen plangintzan lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dauden eta aukera guztietan planteatzen diren eremuek nekazaritza-erabilera dituztela oraindik. Adierazi du Lurralde Antolamenduraren Gidalerroek (LAG) eta Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legeak nekazaritza-lurra eta nekazaritza-azalera erabilgarria babesteko beharra azpimarratzen dutela. Gogora ekarri du Nekazaritza eta Basogintzaren LPSan ezarritako Nekazaritzako Eragin Sektoriala Ebaluatzeko protokoloa aplikatzeko beharra. Hautatzen den aukerak garatu beharreko eremuen hautaketan ebaluazio horren emaitzak erabiltzea gomendatzen da. Jakinarazi du nekazaritza gaitan eskumena daukan foru organoaren txostena beharko dela, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikulua agintzen duenez.

Gomendatu du hirigintza plangintzak landa eta natura espazioak hobetzeko ekintza positiboko programak eta neurriak eta haiei lotutako ebaluazio individualizatuko sistemak sartzearen aukera aztertu beharko lukeela.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

Ondare arkitektonikoari dagokionez, adierazi du babeserako katalogoan sartu behar dela oinarritzko babesa duten kultura-ondasunen multzoa, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen ondorioetarako, eta gomendatzen du lege horren barruan sar daitezela aurrerapenean EAEko monumentu/monumentu-multzo izendatzeko proposatutako ondasun higiezin gisa jasotzen diren ondasunak. Zerrenda horretan 31. elementua (*Elortegi Beko baserria eta labea*) babes bereziko proposamen gisa sartzea

- Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

Señala que el régimen de usos a introducir en cada categoría del suelo no urbanizable habrá de ser acorde con lo señalado en el Plan Territorial Sectorial (PTS) Agroforestal, debiendo recoger expresamente la normativa asociada a las zonas Agroganadera y Campiña de Alto Valor Estratégico y el carácter normativo de los Montes de Utilidad Pública y montes protectores. Informa que las alternativas de desarrollo residencial 1 y 3 suponen la ocupación de suelos agrarios de Alto Valor Estratégico (AVE) según el PTS Agroforestal, concretamente 34 431 m² y 55 180 m² respectivamente, por lo que recuerda lo señalado en la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria en relación con el carácter estratégico y la condición de bienes de interés social de este tipo de suelos. Informa que los ámbitos ya clasificados como suelos urbanizables por el planeamiento actualmente vigente y que se plantean en todas las alternativas albergan aún usos agrarios. Señala que tanto las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) como la Ley de Política Agraria y Alimentaria Vasca inciden en la necesidad de proteger el suelo agrario y la superficie agraria útil. Recuerda la necesidad de que se aplique el protocolo de Evaluación de la Afección Sectorial Agraria establecido en el PTS Agroforestal, recomendado que se empleen los resultados de dicha evaluación en la selección de los ámbitos a desarrollar por la alternativa que se seleccione. Informa que será necesario el informe del órgano foral competente en materia agraria, tal y como establece el artículo 16 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria.

Recomienda que el planeamiento urbanístico valore la posibilidad de incorporar programas y medidas de acción positiva de mejora de espacios rurales y naturales y sistemas de evaluación individualizados en relación con ello.

- Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

En relación con el patrimonio arquitectónico, señala la necesidad de incluir en el Catálogo de protección el grupo de Bienes culturales de protección básica a los efectos de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, recomendando que dentro del mismo se incluyan aquellos bienes que en el Avance se recogen como Bienes inmuebles propuestos para declarar monumentos/conjuntos monumentales de la CAPV. Recomendación incluir como elemento con propuesta de protección especial en dicho listado



gomendatzen du; gainerako elementuek babes ertaineko proposamena dute. Halaber, gomendatzen du 18. *elementua (Maruriko probalekua)* udal-mailan babestutako elementuen artean sartzea, eta 7. *elementua (Utxakoerrota errota) eta 8.a (Unibaso errota)* katalogoan, ustezko arkeologia-proposamena duten ondasun gisa. Eskatu du 1. *elementuari (Altunako I. tumulua) eta 2.ari (Santa Kurtzeko tumulua)* emandako babesa kentzeko eta katalogotik kanpo uzteko, hileta-egitura gisa baztertu eta lurrraren azaleratze natural gisa definitu baitira. Azkenik, *kultura-ondarean esku hartzeko eta babesteko irizpide* batzuk erantsi ditu eranskin gisa.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren Ingurumenaren Iraunkortasunerako Atala.

Adierazi du planteatutako hirigintza-garapenetatik 3. aukerakoek baino ez diotela eragiten apur bat foru-errepideetako zortasun akustikoko eremuari (ZAE), BI-2120 errepidetik gertuen dagoen zerrendan. Adierazi duenez, eragin akustikoari buruzko azterlanik ez dagoenez, ezinezkoa da foru-errepideek proposatutako garapen berrietan izango duten eraginaren ebaluazio sakona egitea, baina, ZAETik urrun dagoenez, ez da espero oso handia izatea. Adierazi du ZAERI eragingo dioten etorkizuneko hirigintza-garapenetan Maruri-Jatabeko Udalarí dagokiola Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailari azterlan akustikoak bidaltzea, txosten bat egin dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 30. artikulua arabera, eta haren edukia aipatutako dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoa izan beharko dela. Gogora ekarri ditu hotsaren arloan udalerrriak dituen eskumenak.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako Atala.

Adierazi du, lurralde-antolamenduaren arloan, Maruri-Jatabeko udalerrian aplikagarria dela Mungia Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean (LPP) adierazitakoa, gaur egun Mungialdea izenekoa, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 22ko 52/2016 Dekretuaren bidez behin betiko onartua. Udalerriko lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioaren deskribapena egiten du, LPPan eta LAGetan adierazitakoaren arabera. Hirigintza-hazkunderi dagokienez, adierazi du LPPk okupaziorako muga-eremuak ezartzen dituela, eta eremu horietatik kanpo hirigintza-garapenak debekatzen direla, eta, Maruri-Jatabeko udalerrirako, LPPk Ergoingo

el *elemento 31. Caserío Elortegi Beko y horno*, teniendo el resto de los elementos una propuesta de protección media. Asimismo, recomienda incluir al *elemento 18. Probaleku de Maruri* entre los elementos protegidos a nivel municipal, a los *elementos 7. Molino Utxakoerrota y 8. Molino Unibaso* en el Catálogo como bienes con propuesta de presunción arqueológica. Solicita se elimine la protección otorgada a los *elementos 1. Túmulo de Ataune I y 2. Túmulo de Santa Kurtze*, debiéndose ser excluidos del Catálogo, ya que se han descartado como estructuras funerarias, definiéndolos como afloramientos naturales del terreno. Finalmente, incluye como anexo una serie de *Criterios de intervención y protección para el patrimonio cultural*.

- Sección de Sostenibilidad Ambiental del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Informa que, de los desarrollos urbanísticos planteados, solo los de la alternativa 3 afectan ligeramente a la Zona de Servidumbre Acústica (ZSA) de las carreteras forales en la franja más cercana a la carretera BI-2120. Señala que la ausencia de un Estudio de impacto acústico imposibilita una evaluación en profundidad de la afección de las carreteras forales en los nuevos desarrollos planteados, aunque, debido a su lejanía respecto a la ZSA, no se espera que sea de gran magnitud. Señala que en los futuros desarrollos urbanísticos que afecten a la ZSA, corresponde al Ayuntamiento de Maruri-Jatabe la remisión al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia de los correspondientes estudios acústicos, a fin de que emita un informe, en virtud del artículo 30 del Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de Contaminación Acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, debiendo su contenido ser el establecido en el artículo 37 del citado Decreto. Recuerda las competencias de los municipios en materia acústica.

- Sección de Ordenación Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Señala que, en materia de ordenación territorial, es de aplicación para el municipio de Maruri-Jatabe lo señalado en el Plan Territorial Parcial (PTP) del Área Funcional de Mungia, actualmente denominado Mungialdea, aprobado definitivamente por Decreto del Gobierno Vasco 52/2016, de 22 de marzo. Efectúa una descripción de la categorización del suelo no urbanizable del municipio en función de lo señalado en el PTP y las DOT. En cuanto a los crecimientos urbanísticos, señala que el PTP establece unos Ámbitos Límites a la Ocupación fuera de los cuales se prohíben los desarrollos urbanísticos, y que, para el municipio de Maruri-Jatabe, el PTP señala un único ámbito



herrigunearen mendebaldean okupazioa mugatzen duen eremu bakarria adierazten duela. HAPOren aurrerapenaren proposamenetik bik (1. eta 3. aukerak) LPPak proposatutako okupazioaren muga-eremuan sartutako lurzorua hartzen dituzte, zati batean edo osorik, baina ez dituzte betetzen LPPan ezarritako gutxieneko dentsitateak (hektareko 50 eta 80 etxebizitza artean, aurrerapenak 11 eta 18 artean aipatzen dituzte). Adierazi du sustatzaileak aintzat hartutako hiru aukeretako edozeinetan aurreikusitako gehieneko etxebizitza-kopurua LAGetan (163 etxebizitza) eta LPPn (183 etxebizitza) ezarritako gehieneko muga baino txikiagoa dela.

Paisaiaren arloan, adierazi du Mungia eremu funtzionalerako ez dagoela onartuta dagokion paisaiaren katalogoa, eta, beraz, hirigintza-plangintzak kontuan hartu beharko dituela paisaiaren arloko jarraibideak (LAGak aplikatzeko arauen 21. artikulua), bai eta 90/2014 Dekretua ere, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa. Mugikortasun-sistemari dagokionez, jakinarazi du beharrezkoa dela egungo garraio-eredua aldatzea, automobilean oinarritutakoa, eta LPPak jasotzen duen ordezko mugikortasun-sarea aipatu du.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzua.

Mendien edo baso-eremuen gaineko HAPO arautu behar den esparru juridikoa adierazi du, eremu horiek gaur egun urbanizaezintzat edo basogintzakotzat kalifikatutako lursailak baitira. Dauden erabilera publikoko mendiak eta horietan aplikatu beharreko araudia adierazi ditu, baita erabileren eta jardueren erregulazioa ere.

Espezie exotikoekin egindako birpopulaketei ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egingo zaien kasuak adierazi ditu, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.E eranskinean xedatutakoaren arabera.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia.

Udalerriko Bizkaiko errepideen foru sarearen osaera eta izenak adierazi ditu. Adierazi duenez, hirigintza-dokumentuan indarrean dagoen foru-sareko errepideen zerrenda jaso beharko da, alde idatzian zein grafikoa, Udalarri lagatakoak bereizita. Udalerrian dauden errepideetarako indarrean dagoen Bizkaiko Errepideen Lurraldearen Plan Sektorialak (LPS) eta izapidetzen ari den Bizkaiko Errepideen II. LPSak jasotzen dituzten jarduketak jasotzen ditu, eta adierazten du HAPO berriak indarrean dagoen

límite a la ocupación al oeste del núcleo de Ergoien. De las propuestas del Avance del PGOU, dos de ellas (alternativas 1 y 3) ocupan en parte o en su totalidad los suelos incluidos en el ámbito límite a la ocupación propuesto por el PTP, si bien no cumplen con las densidades mínimas establecidas en el PTP (entre 50 y 80 viviendas por hectárea cuando el Avance señala entre 11 y 18). Señala que el número máximo de viviendas previsto en cualquiera de las tres alternativas consideradas por el promotor es inferior al límite máximo establecido en las DOT (163 viviendas) y el PTP (183 viviendas).

En materia de paisaje, señala que para el Área funcional de Mungia no está aprobado el correspondiente Catálogo de Paisaje, por lo que el planeamiento urbanístico deberá tener en cuenta directrices en materia de paisaje (artículo 21) de las Normas de Aplicación de las DOT, así como el Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la CAPV. En cuanto al sistema de movilidad, informa que resulta necesario modificar el actual modelo de transporte, basado en el automóvil, y señala la red de movilidad alternativa que recoge el PTP.

- Servicio de Montes de la Diputación Foral de Bizkaia.

Señala el marco jurídico por el que debe regirse el PGOU sobre los montes o áreas forestales, terrenos calificados actualmente como no urbanizables o forestales. Señala los Montes de Utilidad Pública que existen y la normativa de aplicación en ellos, así como la regulación de usos y actividades.

Señala los casos en los que las repoblaciones con especies exóticas serán objeto de una evaluación de impacto ambiental simplificada, de acuerdo con lo dispuesto en el Anexo II.E de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi.

- Dirección General de Innovación y Gestión Vial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Señala la composición y denominaciones de la red foral de carreteras de Bizkaia en el municipio. Indica que el documento urbanístico habrá de incluir tanto en su parte escrita como gráfica la relación de carreteras existentes de la red foral vigente, diferenciado aquellas que han sido cedidas al Ayuntamiento. Recoge las actuaciones que para las carreteras sitas en el municipio recoge el vigente Plan Territorial Sectorial (PTS) de Carreteras de Bizkaia, y el II PTS de Carreteras de Bizkaia que está en tramitación, indicando que el



errepideen LPSa bete beharko duela, eta dagokion bide-kanala aurreikusitako jarduketarako (BI-2120 errepidea egokitzea eta zabaltzea) gordeko duela. Bizkaiko Bizikleta Bideen LPSari dagokionez, ez du Maruri-Jataben jarduketarik aurreikusten. Errepideen arloan indarrean dagoen araudian jabetzari ezarritako mugak adierazi ditu. Halaber, babes akustikoaren arloan indarrean dagoen araudia adierazi du.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.

Udalerrian dauden Europar Batasunaren intereseko habitaten eta intereseko landaretzaren berri eman du. Adierazi du bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) Bizkaiko kudeaketa-planaren arabera, udalerriko ibai-ibilgu guztiak interes bereziko eremuak direla. Espezie hori Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (EMEK) «Galzorian» kategorian dago. Adierazi du Butroe ibaiaren ibarra Bizkaian bizi diren apoarmatu autoktonoaren bi espezieak, (*Emys orbicularis*) eta apoarmatu korrontezalea (*Mauremys leprosa*), aipatu diren Bizkaiko leku bakanetako bat dela. Era berean, jakinarazi du Butroe ibaia mehatxatutako ur gezatako bibalbioentzako habitata dela, eta udalerrian *Potomida littoralis* espeziea aipatu dela, «kaltebera» gisa sartua EMEKen. Udalerrian identifikatu diren Bizkaiko hegazti, anfibio eta intsektu mehatxatuen espezieak adierazi ditu. Konektagarritasun ekologikoari dagokionez, adierazi du *Bizkaiko Lurralde Historikoko azpiegitura berde eta urdinaren proposamenak (2023ko ekaina)* zenbait gune, korridore berde eta konektore urdin bat dituela Maruri-Jataben.

Adierazi du, HAPO behin betiko onartu aurretik, Maruri-Jatabeko Udalak Bizkaian bisoi europarra kudeatzeko Planaren 10. artikuluan ezarritako nahitaezko txostena eskatu behar duela, eta HAPOren kartografiak kudeaketa-planaren aplikazio-eremuaren azalerak jaso behar dituela. Jakinarazi du, lurzoru urbanizaezinean, bisoi europarraren intereseko eremuak babes bereziko antolamendu-kategorian sartu behar direla, eta hiri-lurzoruan eta/edo lurzoru urbanizagarrian hirigintza-plangintzan aurreikusitako eraikuntzako espazio libreen parte izan beharko dutela. Bisoi europarraren interes bereziko eremuetan eragina izan dezaketen jarduketan kasuan aplikatu beharreko araudia adierazi du.

Europar Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatei eta ur-ibilguen inguruan dauden ibaiertzeko basoen, baso misto atlantikoaren eta hostozabalen baso naturalen orbanei dagokionez, adierazten du horien kalifikazio egokia babes bereziko dela. Haren ustez, beharrezkoa da

nuevo PGOU habrá de atender al PTS de carreteras vigente, reservando el correspondiente canal viario para la actuación prevista (Acondicionamiento y ensanche de la BI-2120). En cuanto al PTS de Vías Ciclistas de Bizkaia, no prevé ninguna actuación en Maruri-Jatabe. Señala las limitaciones a la propiedad definidas en la normativa vigente en materia de carreteras. Asimismo, señala la normativa vigente en materia de protección acústica.

- Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia.

Informa de los hábitats de interés comunitario y de la vegetación de interés presentes en el municipio. Indica que todos los cursos fluviales del municipio son Áreas de interés especial (AIE) según el Plan de gestión del visón europeo (*Mustela lutreola*) en Bizkaia, especie que integra el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas (CVEA) en la categoría «En peligro de extinción». Señala que la vega del Butrón es uno de los escasos lugares de Bizkaia en los que se han citado las dos especies de galápagos autóctonos que habitan en Bizkaia: galapo europeo (*Emys orbicularis*) y galápagos leproso (*Mauremys leprosa*). Asimismo, informa que el río Butrón está considerado como un hábitat para los bivalvos dulceacuícolas amenazados, habiéndose citado en el municipio la especie *Potomida littoralis*, incluida como «Vulnerable» en el CVEA. Señala las especies de aves, anfibios e insectos amenazados citadas en Bizkaia que se han identificado en el municipio. En relación con la conectividad ecológica, señala que la *Propuesta de infraestructura verde y azul del territorio histórico de Bizkaia (junio 2023)* incluye diversos espacios núcleo, corredores verdes y un conector azul en Maruri-Jatabe.

Señala que con carácter previo a la aprobación definitiva del PGOU, el Ayuntamiento de Maruri-Jatabe debe solicitar la emisión del informe preceptivo establecido en el artículo 10 del Plan de gestión del visón europeo en Bizkaia, y que la cartografía del PGOU ha de incorporar las superficies del ámbito de aplicación del Plan de gestión. Informa que, en el suelo no urbanizable, las Áreas de interés del visón europeo se han de incluir en la categoría de ordenación de Especial Protección, y en el suelo urbano y/o urbanizable habrán de formar parte de los espacios libres de edificación previstos en el planeamiento urbanístico. Señala la normativa de aplicación en el caso de actuaciones que puedan afectar a las Áreas de interés especial del visón europeo.

En cuanto a los hábitats de interés comunitario prioritarios, las manchas de bosque de ribera, bosque mixto atlántico y bosques naturales de frondosas de elevado porte en torno a los cursos de agua, señala que una calificación adecuada por los mismos es la de Especial Protección. Considera



Aurrerapenak aurreikusten dituen bizitegi-garapenen proposamenak birdefinitzea eta birmugatzea, eraikuntzarik eta urbanizaziorik gabeko gunetara bideratu behar diren azalerei dagokienez.

Apoarmatu babestuen habitata babesteko neurri gisa, jakinarazi du udalerraren hegoaldeko muturra, ekialdean BI-2120 errepideak, mendebaldean BI-2124 errepideak eta hegoaldean Mungiako eta Gatikako udal-mugak mugatzen duena, urbanizaziotik eta balizko garapenen ondoriozko okupaziotik babestu behar dela, lurzoru urbanizaezinaren izaerari eutsiz eta gainjarritako baldintzatzaile baten parte izanik.

Jakinarazi du konektagarritasun ekologikoko baldintzatzaile gainjarri bat sartu behar dela, horretarako *Bizkaiko Lurralde Historikoko azpiegitura berde eta urdinaren proposamenean* jasotako mugaketa erabiliz. Aplikatu beharreko araudia eta espezie exotiko inbaditzaileen ugalketaren aurkako kontrolari buruzko zenbait babes-neurri adierazi ditu.

- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Bere hornidura-sare primarioei eta sekundarioei nahiz saneamendu-sareari buruzko kartografia-informazioa aurkeztu du formatu digitalean, eta haren kudeaketa zuzenerako zenbait baldintzatzaile adierazi ditu.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

Biodibertsitatean eragina duten jasangarritasun-irizpide batzuk aipatu ditu, eta horietara egokitu beharko litzateke hirigintza-plangintza natura-baliabideen zaintzarekin bateragarritzat jotzeko. Ingurumen-helburuen eta jasangarritasun-printzipioen zenbait adierazle ditu. Lurzoruaren okupazio-ereduari dagokionez, jakinarazi du garapenekotzat hartzen diren eremu guztiek antzeko balioak dituztela natura-ondarearen ikuspegitik. Planteatutako lurzoru urbanizagarri bakoitzari atxikitako espazio libreen zonen antolamenduari dagokionez, azpimarratu behar da horien definizioan ez direla kontuan hartu eremu bakoitzaren ingurumen-baldintzatzaileak, eta, beraz, beharrezkotzat jotzen du espazio libreak berrantolatzea, sektore bakoitzaren baliorik garrantzitsuenak babesteko balio dezaten, ibai-ibilguen eta heskai/zuhazti autoktonoen inguruan mugatuz. Sustatzaileak garapen berrien aukerak hautatzerakoan kontuan hartu beharreko jarraibide batzuk jasotzen ditu. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua egokitzen jotzen du,

necesario que las propuestas de desarrollos residenciales que contempla el Avance sean redefinidas y redelimitadas en cuanto a las superficies que deben destinarse a espacios libres de edificación y urbanización.

Como medida de protección del hábitat de los galápagos protegidos, informa que el extremo meridional del municipio delimitado al este por la carretera BI-2120, al oeste por la BI-2124 y al sur por el límite municipal con Mungia y Gatika, debe ser preservado de la urbanización y de la ocupación por posibles desarrollos, manteniendo su carácter de suelo no urbanizable y formando parte de un condicionante superpuesto

Informa sobre la necesidad de incluir un condicionante superpuesto de conectividad ecológica empleando para ello la delimitación contenida en la *Propuesta de infraestructura verde y azul del territorio histórico de Bizkaia*. Señala la normativa de aplicación y una serie de medidas protectoras en relación con el control frente a la proliferación de especies exóticas invasoras.

- Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia.

Aporta información cartográfica en formato digital sobre sus redes primaria y secundaria de abastecimiento y red de saneamiento y señala una serie de condicionantes para su correcta gestión.

- Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.

Señala una serie de criterios de sostenibilidad con incidencia en la biodiversidad a los que debería ajustarse el planeamiento urbanístico para considerarse compatible con la preservación de los recursos naturales. Recoge una serie de indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad. En relación con el modelo de ocupación del suelo, informa que todos los ámbitos que se barajan como de desarrollo cuentan con valores similares desde el punto de vista del patrimonio natural. En cuanto a la ordenación de las zonas de espacios libres adscritos a cada uno de los suelos urbanizables planteados, destaca que en su definición no se ha tenido en cuenta los condicionantes ambientales de cada uno de los ámbitos, por lo que considera necesaria la reordenación de los espacios libres de forma que sirvan para preservar los valores más relevantes de cada sector, delimitando los mismos en torno a los cursos fluviales y setos/bosquetes autóctonos. Recoge una serie de pautas a tener en cuenta por el promotor en la selección de las alternativas de los nuevos desarrollos. En cuanto a la ordenación del suelo no urbanizable, la considera adecuada.



- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

Udalerrian 10, 100 eta 500 urteko errepikatzen denborarako uholde-orbanak identifikatu dira, Butroe ibaiaren eta haren adarren ibilguzi lotuta. Horrez gain, Atzerreka errekaen ibilguzi lotutako uholde-eremu horiek zenbait hirigintza-eremutan eragiten dute. Jabari publiko hidraulikoaren gainean eraginak daudenerako aplikazioko arauak gogorarazi ditu. Udalerrian prezipitazioko isomaximen berri eman du, drainatze-obratan kontuan har daitezten. Maruri-Jatabe larrialdi sismikoari buruzko plana egiteaz salbuesita dagoela jakinarazi du. Baso-suteen arriskuari dagokionez, mugei eta baldintzatzailei buruzko aplikazioko dokumentuak azaldu ditu, hirigintza-plangintzan kontuan hartzeko. Azkenik, arrisku teknologikoen gaineko informazioa du.

- Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.

Identifica dentro del municipio manchas de inundación de 10, 100 y 500 años de periodo de retorno asociados al cauce del río Butroe y su afluentes y ámbitos urbanísticos afectados por zonas inundables asociadas al cauce del arroyo Atzerreka. Recuerda la normativa de aplicación en caso de afecciones sobre el Dominio Público Hidráulico. Informa de las isomáximas de precipitación en el municipio para su toma en consideración las obras de drenaje. Informa que Maruri-Jatabe está exento de realizar un Plan de Emergencia Sísmico. En relación con el riesgo de incendio forestal, señala los documentos de aplicación que recogen las limitaciones y condicionantes a tener en cuenta en la planificación urbanística. Finalmente recoge información en relación con los riesgos tecnológicos.

4.- JASANGARRITASUN PRINTZPIOAK ETA INGURUMEN HELBURU APLIKAGARRIAK.

4.1.- Jasangarritasun-printzipioak.

Plan Orokorra idaztean kontuan hartu beharreko printzipioak izan beharko lirateke, gutxienez, honako artikuluetan zehaztutakoak:

- 1) Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 2. artikulua.
- 2) Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 1. eta 2. artikulua.
- 3) 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa: 3. artikulua.
- 4) 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena: 3. eta 20. artikulua.
- 5) 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena: 3. artikulua.
- 6) Euskadiko Natura-ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 3. artikulua.
- 7) 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa: 2. artikulua.

4.- PRINCIPIOS DE SOSTENIBILIDAD Y OBJETIVOS AMBIENTALES APLICABLES.

4.1.- Principios de sostenibilidad.

Deberían ser principios inspiradores en la elaboración del Plan General, al menos, los establecidos en los siguientes artículos:

- 1) Artículo 2 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental.
- 2) Artículos 1 y 2 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.
- 3) Artículo 3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- 4) Artículos 3 y 20 del Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana.
- 5) Artículo 3 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi.
- 6) Artículo 3 de la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi.
- 7) Artículo 2 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.



- | | |
|---|---|
| 8) 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratarri buruzkoa: 1., 6. eta 17. artikulua. | 8) Artículos 1, 6 y 17 de la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido. |
| 9) 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena: 3. artikulua. | 9) Artículo 3 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas. |
| 10) Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 3., 99. eta 100. artikulua. | 10) Artículos 3, 99 y 100 de la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible. |
| 11) Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 5., 7. eta 16. artikulua. | 11) Artículos 5, 7 y 16 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria. |
| 12) Euskal Autonomia Erkidegoaren Iraunkortasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 5., 6. eta 7. artikulua. | 12) Artículos 5, 6 y 7 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca. |
| 13) Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 2. eta 41. artikulua. | 13) Artículos 2 y 41 de la Ley 7/2021, de 20 de mayo, de Cambio Climático y Transición Energética. |
| 14) Euskal Autonomia Erkidegoaren Iraunkortasun Energetikoari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 38. eta 43. artikulua. | 14) Artículos 38 y 43 de la Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático del País Vasco. |
| 15) Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legearen 8.2 eta 18. artikulua. | 15) Artículos 8.2. y 18 de la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de Movilidad Sostenible de Euskadi. |

4.2.- Ingurumen-helburuak.

Plan Orokorrari ingurumen helburu hauek aplikatu ahalko zaizkio:

- 1) Lurraldearen erabilera orekatua lortzea.
- 2) Lurzorua zigitatzea edo artifizializatzea ekidin behar da; hala, bultzatuko da abandonatuta dauden lursailak birgaitzea eta narriatuak lehengoratztea.
- 3) Lurzoruaren kudeaketa ezin hobea lortzea kutsadura historikoa lehenetsunez leheneratuz eta kutsadura mota berriak saihestuz.
- 4) Lehen mailako karbono-hustubide gisa lurzoruak kontserbatzen direla bermatzea.
- 5) Udal-mailan klima-aldaketarekiko lurralde-eredu egokia eta erresilientea izatea.
- 6) Motordun ibilgailuen alferrikako erabilera behartua murriztea. Herritarren mugikortasun eskaria kudeatzea jendea oinez, bizikletaz eta taldeko garraioan ibiltzera bultzatuz. Mugikortasun ez hain motorizatua, geldoagoa eta hurbilagoa sustatzea.
- 7) Energia aurrezte, energia efizientzia eta energia berriztagarriak erabiltzea sustatzea.

4.2.- Objetivos ambientales.

Los objetivos ambientales aplicables al Plan General serían los siguientes:

- 1) Lograr un uso equilibrado del territorio.
- 2) Evitar el sellado o artifizialización del suelo, potenciando la rehabilitación de los terrenos abandonados y la restauración de los degradados.
- 3) Conseguir una gestión óptima del suelo mediante la recuperación priorizada de la contaminación histórica y la prevención de nuevos tipos de contaminación.
- 4) Garantizar la preservación de los suelos como sumideros de carbono de primer nivel.
- 5) Disponer de un modelo territorial a escala municipal adaptado y resiliente al cambio climático.
- 6) Reducir el uso forzado e innecesario de los vehículos motorizados. Gestionar la demanda de movilidad de las personas reconduciendo el reparto modal hacia el caminar, la bicicleta y el transporte colectivo. Fomentar una movilidad menos motorizada, más lenta y cercana.
- 7) Fomentar el ahorro de energía, la eficiencia energética y el uso de energías renovables.



- | | |
|--|--|
| 8) Dibertsitate biologikoaren galera gelditzea; horretarako, habitat eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestu eta berrezarri beharko da. Landaretza autoktonoko habitatak sustatu eta garatzea. Lurraldeko konektagarritasun ekologikoa hobetzea. | 8) Detener la pérdida de diversidad biológica mediante la protección y la restauración del funcionamiento sostenible de los hábitats y ecosistemas. Potenciación y desarrollo de hábitats de vegetación autóctona. Mejora de la conectividad ecológica del territorio. |
| 9) Natura baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea. | 9) Fomentar el consumo responsable de los recursos naturales. |
| 10) Hondakin gutxiago sortzea eta hobeto kudeatzea. | 10) Reducir la generación de residuos y mejorar su gestión. |
| 11) Ur masen egoera ekologiko ona lortzea eta hondatzen ez uztea. | 11) Alcanzar un buen estado ecológico de las masas de agua e impedir su deterioro. |
| 12) Airearen kalitatea hobetzea. | 12) Mejorar la calidad del aire. |
| 13) Kutsadura akustikoa eta argi kutsadura prebenitu, zaindu eta murriztea. | 13) Prevenir, vigilar y reducir la contaminación acústica y lumínica. |
| 14) Paisaien babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatzea. Lurraldean dauden edo lurraldean planteatzen diren instalazio, eraikin edo azpiegituren ikusizko integrazio egokia lortzen laguntzea. | 14) Promover la protección, gestión y ordenación de los paisajes. Contribuir a la adecuada integración visual de las instalaciones, edificaciones o infraestructuras presentes o planteadas en el territorio. |
| 15) Arrisku naturalik eta teknologikorik ez eragitea edo, behar denean, deuseztatzea. | 15) No provocar o, en su caso, eliminar los riesgos naturales y tecnológicos. |
| 16) Udal plangintzaren bidez udalerriko biodibertsitate biologikoa eta paisaiak zaintzen dituen baso kudeaketa sustatzea. | 16) Fomentar desde el planeamiento municipal una gestión forestal respetuosa con la biodiversidad biológica del municipio y sus paisajes. |
| 17) Berotegi efektuko gasen emisioa mugatzea. | 17) Limitar las emisiones de gases de efecto invernadero. |
| 18) Klima aldaketarako egokitzapena kudeatzea; horretarako, aurreikusitako eraginen gaineko kalteberatasuna murriztea. | 18) Gestionar la adaptación al cambio climático minimizando la vulnerabilidad ante los impactos previstos. |
- Planak ingurumen helburu zehatzak hartu ahalko ditu adierazitako ingurumen helburuetan oinarrituta.

4.3.- Ingurumen irizpide estrategikoak.

Planak behar bezala justifikatu beharko luke egon litezkeen bizitegi garapen berrien, jarduera ekonomikoen, ekipamenduen eta azpiegituren eskea eta dimentsionamendua, halakorik balego. Zorrotz aztertu beharko lirateke planaren bidez bete beharreko beharrianak, aurreikusitako garapenak neurriz kanpokoak izan ez daitezen. Nolanahi ere, Plan Orokorrean, hirigintza garapenerako udalerriak daukan harrera ahalmenaren azterlan gehitu behar da.

4.3.- Criterios ambientales estratégicos.

El plan debería justificar suficientemente la demanda y el dimensionamiento de los posibles nuevos desarrollos residenciales, de actividades económicas, de equipamientos y de infraestructuras, si los hubiera. Se deberían analizar con rigor las necesidades existentes a dar respuesta por el planeamiento, evitando el sobredimensionamiento de los desarrollos previstos. En todo caso, el Plan General debe incluir un estudio de la capacidad de acogida del municipio para nuevos desarrollos urbanísticos.



Honako ingurumen-irizpide hauek estrategikotzat jo beharko lirateke:

1) Lehenasuna ematea jadanik artifizializatuta dauden lurzoruen erabilerari, batez ere nekazaritza lurzorua eta lurzoru naturala zainduta.

2) Lehenasuna ematea herriko hasierako guneeetan eraikitako eta urbanizatutako ondarea birgaitzeari eta etxebizitza hutsak erabiltzeari.

3) Lehenasuna ematea kutsatutako lurrak birgaitzeari lurzoru urbanizaezina birkalifikatu baino lehen.

4) Hiri banaketa eta barriadura saihestea, erabilerek edo jarduerak espazio aldetik egoki integratuta eta kohesionatuta jarraitu ahal izan dezaten, mugikortasun gutxiago sortzeko helburuarekin.

5) Hiri egitura itxiak, trinkoak eta konplexuak sustatzea azaldutako beharrei erantzuna emateko. Inguruko hirigintzara egokitutako eraikuntza-dentsitate handi samarrak sortzea.

6) Klima aldaketaren aurrean erresilientzia duen hiri-azpiegitura sustatzea, sendoa, malgua eta erabilera mistoduna.

7) Garapenak garraio publikoa edota ibilgailu pribatua ez den beste garraio mota batzuk eskura dauden lurzoruetan kokatzea. Hain kutsagarriak ez diren bestelako garraiobideen ordeztu, ibilgailu pribatuak erabiltzea errazten edo sustatzen duten aparkalekuak sor daitezzen saihestea.

8) Garapen berriak hornidura energetikoa bideragarria (iturri berriztagarrien ondoriozko energia oinarri duten energia hornidurako sistema deszentralizatuen bidez), erraza eta azkarra suertatzen den lurzoruetan egitea.

9) Hirigune berriak energia eraginkortasun pasiborako egokiak diren lurretan egitea.

10) Garapen berriak ur ingurunea eta haren zerbitzuak zein inguruak kontserbatzeko aukera ematen duten lurzoruetan kokatzea.

11) Uholde arriskua duten eremuetan, hirigintza garapen berriak ezar daitezzen eragozteko.

12) Ekiditea hirigune berriak ezartzean arrisku naturalak sortzea edo, kasuan kasu, arriskua naturalak ez saihestea.

13) Egoera naturalean dauden ur lasterrak zuzentzea eta bideratzea eragozteko.

Debería considerarse estratégicos los siguientes criterios ambientales:

1) Priorizar la utilización de suelos ya artifizializados, especialmente preservando el suelo agrario y natural.

2) Priorizar la regeneración del patrimonio construido y urbanizado en los núcleos originarios de la localidad y la utilización de las viviendas vacías.

3) Priorizar la recuperación de suelos contaminados antes de recalificar suelo no urbanizable.

4) Evitar la segregación y dispersión urbana para posibilitar el mantenimiento de la correcta integración y cohesión espacial de los diversos usos o actividades con el fin de reducir la generación de movilidad.

5) Fomentar estructuras urbanas densas, compactas y complejas para dar respuesta a las necesidades planteadas. Generar densidades edificatorias relativamente elevadas adaptadas al urbanismo circundante.

6) Impulsar una estructura urbana resiliente al cambio climático, compacta, flexible y mixta en usos.

7) Localizar los desarrollos en suelos con buena accesibilidad al transporte público y/o a otros modos de transporte diferentes al coche privado. Evitar la creación de zonas de aparcamiento que faciliten y promuevan el uso del vehículo privado en detrimento de otros medios de transporte menos contaminantes.

8) Localizar los nuevos desarrollos en suelos donde sea viable, sencillo y rápido el suministro energético mediante sistemas descentralizados de suministro de energía basados en energía procedente de fuentes renovables.

9) Localizar los nuevos desarrollos en suelos que tengan adecuadas condiciones de eficiencia energética pasiva.

10) Localizar los nuevos desarrollos en suelos que permitan conservar el medio acuático y sus servicios, así como su entorno.

11) Evitar el establecimiento de nuevos desarrollos urbanísticos en las zonas inundables.

12) Evitar que el establecimiento de nuevos desarrollos urbanísticos provoque o, en su caso, no elimine riesgos naturales.

13) Evitar la rectificación o canalización de los cauces en estado natural.



- 14) Eskari berriak asetzeko ur baliabide nahikoak egotearen baldintzapean jartzea garapen berriak.
- 14) Condicionar los nuevos desarrollos a que exista recurso hídrico suficiente para satisfacer las nuevas demandas.
- 15) Garapenak ur hornidura eta saneamenduko sareak eskuragarri dituzten lurzoruetan kokatzea, zerbitzu egokiak bermatzeko.
- 15) Localizar los desarrollos en suelos con acceso a redes de abastecimiento y saneamiento de aguas que garanticen el correcto servicio a dichos desarrollos.
- 16) Europar Batasunaren intereseko habitaten narriadura eragozte.
- 16) Evitar el deterioro de los hábitats de interés comunitario.
- 17) Fauna habitatak zaindu, horiei eutsi edo lehengoratzten direla bermatzea, bereziki katalogatutako faunaren habitatak.
- 17) Asegurar la preservación, mantenimiento o recuperación de los hábitats de fauna, especialmente los de la catalogada.
- 18) Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak betetzen direla bermatzea. Behar denean, garapen berriak aplikatzen diren kalitate akustikoaren helburuak betetzea aurreikusten den tokietan egitea.
- 18) Asegurar el cumplimiento de los objetivos de calidad acústica establecidos en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En su caso, los nuevos desarrollos se localizarán en áreas acústicas donde se cumplan, previsiblemente, los objetivos de calidad acústica aplicables.
- 19) Hirigintza-plangintzan klimaren kalteberatasun eta arriskuaren azterketa txertatzea eta klima-aldaketari egokitzea. Hirigintzaren eta eraikuntzaren arloei dagokienez, tokian klima-aldaketari egokitzeko eredu berriak garatzea, lurzoruen iragazkortasuna eta hiriko berdeguneak sustatzeko.
- 19) Integrar el análisis de vulnerabilidad y riesgo climático y la adaptación al cambio climático en el planeamiento urbanístico. Desarrollar nuevos modelos de adaptación al cambio climático en el ámbito local en las áreas de urbanismo y edificación, fomentando la permeabilización del suelo y los espacios verdes urbanos.
- 20) Hirigintza-plangintzak diseinatzea honako irizpide hauek kontuan hartuta: bero-boladak saihestea, euri-urak erregulatzeko, berrerabiltzeko eta iragazteko sistemak izatea, hiriko azpiegitura berdea sartzeta, uholde-arriskua minimizatzea eta eraikuntza moldagarria sustatzea. Hiria berroneratzeko esku-hartzea moldapen-neurriak sartzeko aprobeztatzea, eta hiri- eta arkitektura-diseinuan printzipio bioklimatikoak ezartzea.
- 20) Diseñar planificaciones urbanísticas donde se incorporen criterios para evitar olas de calor, sistemas de regulación, reutilización y filtración de aguas de lluvia, infraestructura verde urbana, minimización del riesgo de inundabilidad y promoción de edificaciones adaptativas. Aprovechar las intervenciones de regeneración urbana para incorporar medidas de adaptación, implantando principios bioclimáticos en el diseño urbano y arquitectónico.
- 21) Flora eta faunako espezie exotiko inbaditzaileak heda daitezen eta inbaditutako gunen berriak ager daitezen eragozte.
- 21) Evitar la proliferación y la generación de nuevos focos de especies de flora y fauna exótica invasora.
- 22) Lurzoru urbanizaezinak honako irizpide hauen arabera antolatzea:
- 22) Ordenar el conjunto del suelo no urbanizable atendiendo a los siguientes criterios:
- a) Lurzoru urbanizaezin moduan sailkatzea 2/2006 Legearen 13. artikuluko irizpideekin bat datozen lurzoruak.
- a) Clasificar como suelo no urbanizable los suelos que se ajusten a los criterios del artículo 13 de la Ley 2/2006.
- b) Plan Orokorrean 2/2006 Legearen 53.4 artikuluan adierazitako zehaztapenak bilduko dira. Horri dagokionez, LAGetan, Mungia Eremu Funtzionaleko LPSan eta Nekazaritza eta Basozaintza Antolatzeko LPSan ezarritako antolamendu kategorien izendapenak eta irizpideak erabiliko dituen kalifikazio bat ezarriko da urbanizaezin sailkatutako lurzorurako, eta azpikategoria
- b) Incluir las determinaciones señaladas en el artículo 53.4 de la Ley 2/2006. A este respecto, se establecerá para el suelo clasificado como no urbanizable una calificación que utilice las denominaciones y criterios de las categorías de ordenación establecidas en las DOT y en el PTP del Área Funcional de Mungia y en el PTS Agroforestal, pudiendo incorporarse



gehigarriak sartu ahal izango dira, udalerraren berezitasunen arabera.

c) Lurzoru urbanizaezinak lurralde, paisaia eta funtzio aldetik duen egitura gordetzea eta elementu bereziak babestea, erabilerak eta eraikuntza egokia kalifikatu eta araututa.

d) Paisaiaren egituraketa elementuak eta konektibitate elementuak mantentzea eta habitaten zatiketa kontrolatzea.

e) Udalerriko tokiko azpiegitura berdea eremu naturalen, erdi naturalen eta beste ingurumen elementuen sarea da. Landa eta hiri inguruneetan agertzen da eta estrategikoki planifikatu, diseinatu eta kudeatuko da, ekosistemen zerbitzu sorta zabala eskaintzeko. Helburu bakarreko azpiegitura grisaren aldean, azpiegitura berdeak onura ugari dakartza.

f) Udalerriko ondare historiko, arkitektoniko eta arkeologikoa babestu eta indartzea.

g) Bertako basoa eta loraldi luzeko landareak lehenesteko neurriak txertatzea, espezieak eta biodibertsitatea mantentze aldera.

subcategorías adicionales en función de las peculiaridades del municipio.

c) Preservar la estructura territorial, paisajística y funcional del suelo no urbanizable y proteger los elementos singulares mediante una calificación y una regulación de usos y de la edificación adecuada.

d) Mantener los elementos de estructuración y de conectividad del paisaje y controlar la fragmentación de hábitats.

e) Considerar la infraestructura verde local del municipio, definida como una red de zonas naturales y seminaturales y de otros elementos ambientales, presente en los entornos rurales y urbanos, planificada de forma estratégica, diseñada y gestionada para la prestación de una extensa gama de servicios ecosistémicos. Frente a la infraestructura gris, de finalidad única, la infraestructura verde aporta múltiples beneficios.

f) Proteger y potenciar el patrimonio histórico, arquitectónico y arqueológico del municipio.

g) Incorporar medidas tendentes a la priorización del bosque autóctono y plantaciones de turno largo para el mantenimiento de las especies y la biodiversidad.

Ingurumen irizpide estrategiko hauek Plan Orokorrean aurreikusitako helburuak lortzeko hautabideen identifikazio, deskribapen eta ebaluazioan sartuko dira. Ingurumen-irizpide estrategiko horiei Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aipatutakoak erantsi behar zaizkie, bai eta Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak proposatutakoak ere.

4.4. Ingurumen adierazleak.

Udalerriko hirigintza eta ingurumen ezaugarriak direla eta, ez da beharrezkoa ingurumen adierazlerik erabiltzea Plan Orokorra prestatzeko prozeduran, baina ahal den heinean, beharrezkoak izango dira jarraipenaren ondoko aldian. Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak gomendatutako adierazleak kontuan hartuko dira.

Estos criterios ambientales estratégicos serán integrados en la identificación, descripción y evaluación de las alternativas para alcanzar los objetivos adoptados por el Plan General. A estos criterios ambientales estratégicos hay que añadir los recogidos en las Directrices de Ordenación Territorial y los propuestos por la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco y el Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia en sus respectivos informes.

4.4.- Indicadores ambientales.

Las características urbanísticas y ambientales del municipio hacen innecesaria la utilización de indicadores ambientales durante el proceso de elaboración del Plan General, pero, en la medida de lo posible, sí son necesarios en la fase posterior de seguimiento. Se considerarán los indicadores recomendados por la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco en su informe.



5.- INGURUMENAREN IKUSPEGITIK ALDERDI AIPAGARRIAK ETA INGURUMEN ARAZOAK EBALUAZIOAREN EREMUAN.

a) Ur jabari publikoa eta horren zortasun- eta zaintza-eremuak. Hori guztia Uren Legearen testu bateginaren eta bere garapenerako arautegiaren bidez dago araututa.

b) Maruri-Jatabe udalerriko "Butroe-B" (ES111R048020 masa-kodea) azaleko ur-masa naturala dago. Egoera *ona baino txarra* da, eta ingurumen-helburua da 2027an egoera ekologiko ona eta 2021ean edo lehenago egoera kimiko ona lortzea.

c) Maruri-Jatabe udalerrria *Iparraldeko antiklinorioa* lurpeko ur masaren gainean dago. Bere kodea ES017MSBT017-004 da. Hirigintza plangintzan araututako erabilerek bermatu beharko dute eraginik ez sorraraztea lurpeko uren kalitatean.

d) Maruri-Jatabe udalerrian daude gune babestuen erregistroan jasotako guneak, indarrean dagoen Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoan ezarritakoarekin bat etorritik: espezie babestuen interes bereziko eremuak (bisoi europarra).

Plan Orokorrean, lurzoru urbanizaezinari buruzko zehaztapenen artean badauden ur hartune garrantzitsuenak arautu beharko dira, hala badaude, eta ezinbestean hartu behar dira kontuan Plan Hidrologikoko Gune Babestuen Erregistroan aipatzen direnak. Babes perimetroa finkatu behar da grafikoetan, eta babes neurriak eta erabilera arautzeko neurriak ezarri behar dira.

e) Udalerrriaren zati bat uholde arriskuko eremua da, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan jasotako definizioaren arabera. Uholdea, ageriko arrisku naturala izateaz gain, berebiziko garrantzia daukan prozesu naturala da ibaien ekosisteman eta, beraz, ahal den neurrian, zaindu beharrekoa da.

f) Udalerriko ur-ibilguak bisoi europarra kontserbatzeko interes bereziko eremuak dira, Bizkaiko Lurralde Historikoan espeziearen kudeaketa-planak xedatutakoaren arabera (Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua).

g) Maruri-Jatabe udalerrian Europar Batasunaren intereseko eta Europar Batasunaren lehenetsuneko intereseko honako habitat hauek daude, gutxienez:

5.- ÁREAS AMBIENTALMENTE RELEVANTES Y PROBLEMAS AMBIENTALES EN EL ÁMBITO DE EVALUACIÓN.

a) El Dominio Público Hidráulico y sus zonas de servidumbre y policía, regulados por el Texto Refundido de la Ley de Aguas y su Reglamento de desarrollo.

b) En el municipio de Maruri-Jatabe se encuentra la masa de agua superficial natural Butroe-B (código masa ES111R048020) que se encuentra en estado *peor que bueno* y cuyo objetivo medioambiental es conseguir el buen estado ecológico en 2027 y el químico en 2021 o antes.

c) El municipio de Maruri-Jatabe se localiza sobre la masa de agua subterránea denominada *Anticlinorio norte* con código ES017MSBT017-004. Los usos previstos en el planeamiento urbanístico deben garantizar la no afección a la calidad de las aguas subterráneas.

d) En el municipio de Maruri-Jatabe se encuentran espacios incluidos en el Registro de Zonas Protegidas del Plan Hidrológico de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental vigente: Áreas de interés especial de especies protegidas (visión europeo).

El Plan General deberá recoger entre sus determinaciones para el suelo no urbanizable las captaciones de agua más significativas, si las hubiere, incorporando en todo caso las incluidas en el Registro de Zonas Protegidas del Plan Hidrológico. Habrán de definirse gráficamente sus zonas de salvaguarda y establecerse las medidas de protección y regulación de usos.

e) Parte del municipio es zona inundable, según la definición contenida en el Reglamento del Dominio Público Hidráulico. La inundación, además de un riesgo natural evidente, es un proceso natural de suma importancia en el ecosistema fluvial y, por tanto, en la medida de lo posible, a preservar.

f) Los cursos de agua del municipio son Áreas de Interés Especial para la conservación del visón europeo según lo establecido en el plan de gestión de la especie en el Territorio Histórico de Bizkaia (Decreto Foral de la Diputación Foral 118/2006, de 19 de junio).

g) En el municipio de Maruri-Jatabe se encontrarían presentes, al menos, los siguientes hábitats de interés comunitario y hábitats prioritarios de interés comunitario:



- 4030 Txilardi lehor europarrak.
- 6510 Altitude baxuko sega-belardi elkorrak.
- 91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako alubioi basoak.
- 6210 Larre mesofiloak *Brachypodium pinnatum* espeziearekin (*lehentasunezkoa orkidea nabarmenak baditu).

h) Maruri-Jataben dago Euskal Autonomia Erkidegoko naturagune garrantzitsuen katalogoko Armintza-Bakioko naturagune garrantzitsuaren hegoaldeko muturra.

i) Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuaren txostenaren arabera, faunarentzako eremu garrantzitsuak: Butroeko ibarra, apoarmatu autoktonoaren bi espezie, zehazki apoarmatu istilzalea (*Emys orbicularis*) eta apoarmatu korrontezalea (*Mauremys leprosa*), izendatu diren neurrian; ur-ibilguak ur-gezetakoa kuskua espezie mehatxatuen habitatak dira.

j) Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 22ko 52/2016 Dekretuaren bidez behin betiko onartutako Mungia Eremu Funtzionaleko LPPan babes berezikotzat sailkatutako eremuak. LPPak ingurumen-babes handiena ematen dio Butroeko ibarraren beheko zatiko eremu bati, udalerrriaren hegoaldeko muturrean, eta iparraldeko beste gune txiki bati, Bakioko kostaldearen barruan.

k) Kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioa. Maruri-Jatabe udalerrian zabortege gisa identifikatutako hiru eremu daude, 48061-00003, 48061-00004 eta 48061-00001 kodeekin. Ingurumen-azterketa estrategikoak atal bat izango du eta, bertan, inbentarioan jaso diren partzelak aipatuko dira, egungo erabilera eta HAPOK proposatutakoa adierazita. Lurzoruen erabilera aldatzea proposatzen bada, Lurzoruen kutsadura prebenitu eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31. artikulua xedatutakoa hartuko da kontuan.

l) Udalerriko azpiegitura berdea, zona naturalen, erdi-naturalen eta bestelako ingurumen-elementuen sare gisa definitua. Landa- eta hiri-inguruneetan agertzen da eta estrategikoki planifikatu, diseinatu eta kudeatzen da, ekosistema-zerbitzuen sorta zabala eskaintzeko. Hirigintzako plangintzak tokiko azpiegitura berdea hartuko du barne, zeina eremu funtzionalekora eta EAEkora lotuta egongo baita. Xehetasunak emanda zehaztu beharko dira aplikatu beharreko erabilera erregulazioa eta irizpideak.

- 4030 Brezales secos europeos.
- 6510 Prados pobres de siega de baja altitud.
- 91E0* Bosques aluviales de *Alnus glutinosa* y *Fraxinus excelsior*.
- 6210 Pastos mesófilos con *Brachypodium pinnatum* (*prioritario si contiene notables orquídeas).

h) En Maruri-Jatabe se sitúa el extremo sur del espacio natural relevante de Armintza-Bakio del Catálogo de espacios naturales relevantes del País Vasco.

i) Zonas con importancia para la fauna identificadas en el informe del Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia: la vega del Butrón, como ámbito en los que se han citado las dos especies de galápagos autóctonos que habitan en Bizkaia, en concreto el galápagos europeo (*Emys orbicularis*) y el galápagos leproso (*Mauremys leprosa*); los cursos de agua constituyen el hábitat de bivalvos dulceacuícolas amenazados.

j) Ámbitos clasificados como de Especial Protección en el PTP Área Funcional de Mungia, aprobado definitivamente por Decreto del Gobierno Vasco 52/2016, de 22 de marzo. El PTP otorga la máxima protección ambiental a una zona perteneciente al tramo bajo de la vega del Butrón, en el extremo meridional del municipio, y a otro pequeño enclave en la zona septentrional, incluido dentro del frente costero de Bakio.

k) Inventario de suelos con actividades o instalaciones potencialmente contaminantes. En el municipio de Maruri-Jatabe se encuentran tres zonas identificadas como vertedero con códigos 48061-00003, 48061-00004 y 48061-00001. El Estudio ambiental estratégico incluirá un apartado en el que se señalen las parcelas inventariadas, junto a su uso actual y el propuesto por el PGOU. En el caso de que se proponga un cambio de uso de un suelo se estará a lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

l) Infraestructura verde local del municipio, definida como una red de zonas naturales y seminaturales y de otros elementos ambientales, presente en los entornos rurales y urbanos, planificada de forma estratégica, diseñada y gestionada para la prestación de una extensa gama de servicios ecosistémicos. El planeamiento urbanístico deberá incluir la infraestructura verde local conectada con la del Área Funcional y con la de la CAPV. Se deberá especificar, con detalle suficiente, los criterios y regulación de usos a aplicar.



Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko ekainean *Bizkaiko Lurralde Historikoko azpiegitura berde urdinaren proposamena* garatu du. Proposamen horrek Bizkaiko eskalan definitzen ditu lurraldearen azpiegitura berdean integratu beharreko eremuak, eta kontuan hartu behar da Maruri-Jatabeko azpiegitura berdea definitzeko (<https://www.bizkaia.eus/es/cambio-climatico/infraestructura-verde-azul>). Maruri-Jataben, udalerraren hego-mendebaldeko zatia sartzen da «AN07 Butroe» gunearen barruan, eta Errekazabala erreka zati txiki bat «AN09 Armintza-Bakio kostaldea» gunearen barruan, bai eta bi korridore berde ere: «CV11 Butroe-Urdaibai» ekialdetik mendebaldera eta «CV10 Gorliz-Armintza kostaldea» ipar-hegoaldera, eta, azkenik, «CCA.20Butroe» konektore urdina. HAPOn Aurrerapenak azpiegitura berdearen proposamen-plano bat jasotzen du, eta plano horrek oinarritzat hartzen du aipatutako dokumentazioa, alde zurretik egokitzen jotzen dena. Planaren araudiak eremu horietako erabilerak eta jarduerak edo baldintzatzaileak zehaztu beharko ditu.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintza Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean zehaztutako balio estrategiko handiko lurzoruak. Plan Orokorrek nekazaritzako balio handia duten lurzoruen gaineko jarduketarik barruratsen badu, Bizkaiko Foru Aldundiko nekazaritza-arloan eskuduna den foru-organismoaren nahitazeko txostena eskuratu beharko da. Plan Orokorrek nekazaritzaren arloan duen eragina ebaluatu beharko da, Nekazaritza eta Basozaintza Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak ezartzen duenaren arabera.

n) Flora exotiko inbaditzaileak hartutako zonak. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintza Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak xedatutakoaren arabera, Plan Orokorrek, Ingurumen Hobekuntza kategoriaren barruan, flora inbaditzailearen espezieek hartutako azalerak mugatuko ditu, hedapen eta estaldura zabala badute. Jarduketan xedea espezie horiek erabat desagerraraztea izan behar da. Plan Orokorren arauetan sartuko dira Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Foru Zerbitzuak bere txostenean adierazitako betebeharrak. Era berean, Plan Orokorren zehaztapenen artean, gutxienez, orubeak eta urbanizazioak flora exotiko inbaditzailearen espezierik gabe mantentzeko betebeharra sartuko da.

ñ) Euskal Kultura Ondareko ondasunak, udalerriko balizko arkeologia guneak barne.

La Diputación Foral de Bizkaia ha desarrollado la *Propuesta de infraestructura verde azul del Territorio Histórico de Bizkaia (junio de 2023)* que define a escala de Bizkaia las zonas a integrar en la infraestructura verde del territorio y que se debe tener en cuenta para definir la infraestructura verde de Maruri-Jatabe (<https://www.bizkaia.eus/es/cambio-climatico/infraestructura-verde-azul>). En Maruri-Jatabe incluye la parte suroeste del municipio dentro del área núcleo «AN07 Butroe» y una pequeña porción del arroyo Errekazabala dentro del área núcleo «AN09 Costa Armintza-Bakio», así como dos corredores verdes: «CV11 Butroe-Urdaibai» en sentido este-oeste y «CV10 Costa Gorliz-Armintza» en sentido norte-sur, y finalmente el conector azul «CCA.20Butroe». El Avance del PGOU ya incluye un plano de propuesta de infraestructura verde que toma como base la documentación señalada que, de manera preliminar, se considera adecuado. La normativa del plan habrá de especificar los usos y actividades o los condicionantes que rijan en esas áreas.

m) Suelos de alto valor estratégico así definidos en el PTS Agroforestal de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En caso de que el Plan General incluya alguna actuación sobre suelos de alto valor agrológico, se deberá contar con el informe del órgano foral competente en materia agraria de la Diputación Foral de Bizkaia. Se evaluará la afección sectorial agraria del Plan General según lo establecido en el PTS Agroforestal.

n) Zonas ocupadas por flora exótica invasora. Según lo establecido en el PTS Agroforestal de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Plan General delimitará, dentro de la categoría Mejora Ambiental, las superficies ocupadas por especies de flora invasora con amplia implantación y cobertura. En estas zonas las actuaciones a realizar se encaminarán a su erradicación. La normativa del Plan General incluirá las obligaciones que el Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia señala en su informe. Asimismo, entre las determinaciones del Plan General se incluirá, al menos, la obligación de mantener los solares y urbanizaciones libres de especies de flora exótica invasora.

ñ) Bienes integrantes del Patrimonio Cultural Vasco, incluidas las zonas de presunción arqueológica del municipio.



o) Plan Orokorrak eremuaren zonakatze akustikoaren planoak jaso behar du eskala egokian, udalerrian mugatutako zortasun akustikoko guneak aintzat hartuz. Egungo eremu urbanizatuak eta etorkizuneko hirigintza-garapenak bereiziko ditu zonakatze akustikoko planoak, garapenok eremu urbanizatuek baino kalitate-helburu murriztaileagoak izango baitituzte kanpoko espazioetan: 5 dB(A) gutxiago.

Halaber, plan orokorraren barruan eragin akustikoaren azterketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 37. artikuluan ezarritakoa, jaso beharko da. Azterlan horrek ziurtatu beharko du kalitate akustikoko helburuak betetzen direla kanpoaldean eremuaren hedadura osoan edo zedarriztatutako eremu akustikoetan.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sail honek, Tecnalarekin batera gida hauek egin ditu eta webgunean daude eskuragarri (www.bizkaia.eus → Mugikortasuna, garraioa eta errepideak → Trafikoa eta errepideak → Kudeaketa eta ordainsariak → Zarata eta soinu kalitatea → Informazio tekniko akustikoa → Udalentzako gida teknikoak).

- EAEko Hots Kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretua aplikatzeko gida teknikoa etorkizuneko garapen urbanistikoetan.

- Egiturazko antolamenduan zaratsaren kudeaketa txertatzeko gida teknikoa: Zonakatze akustikoa. EAEko Hots Kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretua aplikatzeko gida teknikoa

p) Ur hornidura eta saneamendua. Udalerriko saneamendu- eta hornidura-sistemen gaineko informazioa jaso beharko da Ingurumen Azterketa Estrategikoan. Bizitegi kopuruaren hazkundearen eta jarduera ekonomikoen aurreikuspenek ekarriko luketen eskariaren igoera zenbatekoa izango litzatekeen kuantifikatu beharko da, indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudiaren 14. eta 15. artikuluetan zehaztutako irizpideak aplikatuta. Antzeko balorazioa egin behar da sortutako hondakin uren kasuan, haiek gehitu daitezkeen neurria baloratuz.

Halaber, Plan Hidrologikoaren araudiaren 57. artikuluan ezarritakoaren arabera, hornidura, saneamendua eta arazketa gauzatzeko proposatutako konponbidea txertatu beharko da, sare orokorraren mailan egiturazko antolamenduaren plangintzan, eta tokiko sistemaren mailan antolamendu xehatuan.

o) El Plan General deberá incluir un plano de zonificación acústica del ámbito, a escala adecuada, que tenga en cuenta las zonas de servidumbre acústica delimitadas en el municipio. Este plano de zonificación acústica diferenciará entre áreas urbanizadas existentes y futuros desarrollos urbanísticos, en tanto en cuanto estos últimos tendrán objetivos de calidad en el espacio exterior 5 dB(A) más restrictivos que las primeras.

Asimismo, el Plan General incluirá el Estudio de Impacto Acústico previsto en el artículo 37 del Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de Contaminación Acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este estudio deberá asegurar el cumplimiento de los objetivos de calidad acústica en el exterior en toda la extensión de las áreas acústicas delimitadas.

Este Departamento de Medio Natural y Agricultura, con la colaboración de Tecnalía, ha elaborado las siguientes guías, disponibles en su página web (www.bizkaia.eus → Movilidad, transporte y carreteras → Tráfico y carreteras → Gestión y peajes → Ruido y calidad sonora → Información técnica acústica → Guías Técnicas para ayuntamientos).

- Guía Técnica para la aplicación del Decreto 213/2012 sobre contaminación acústica en la CAPV, en futuros desarrollos.

- Guía Técnica para la integración de la gestión del ruido en el planeamiento estructural: Zonificación Acústica. Aplicación del Decreto 213/2012 sobre contaminación acústica en la CAPV.

p) Abastecimiento y saneamiento de agua. El Estudio ambiental estratégico recogerá información acerca de los sistemas de saneamiento y abastecimiento existentes en el municipio. Se deberá cuantificar el aumento de la demanda que supondrían las previsiones de crecimientos residenciales y de actividades económicas, mediante la aplicación de los criterios definidos en los artículos 14 y 15 de la normativa del Plan Hidrológico vigente. Una valoración similar debe hacerse en el caso de las aguas residuales generadas, valorando su posible incremento.

Asimismo, y según lo previsto en el artículo 57 de la normativa del Plan Hidrológico vigente, se deberá incorporar la solución propuesta para el abastecimiento, saneamiento y depuración, a nivel de red general en el planeamiento de ordenación estructural, y a nivel de sistema local en la ordenación pormenorizada.



6.- PLAN OROKORRAREN PROPOSAMENEN INGURUMEN-ANALISIA.

6.1.- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua.

Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan, Eusko Jaurlearitzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak balio estrategiko handiko nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzorutzat jotzeari buruz adierazitakoa hartuko da kontuan.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak eskatu du honako hauek sartzeko lurzoru urbanizaezinaren babes bereziaren kategorian: (1) bisoi europarra kudeatzeko planean ezarritako interes bereziko eremuak, (2) galeria-basoaren, baso misto atlantikoaren eta ur-ibilguen inguruko tamaina handiko hostozabalen baso naturalen orbanak, eta (3) Europar Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak (*Brachypodium pinnatum* duten larre mesofiloak eta *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*en baso alubialak).

Era berean, Natura Ondarearen Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen du udalerrriaren hegoaldeko muturra – ekialdean BI-2120 errepideak, mendebaldean BI-2124 errepideak eta hegoaldean udal-mugak mugatzen duena – urbanizaziotik babestea, lurzoru urbanizaezinaren izaerari eutsiz, garrantzi handikoa baita apoarmatu europarraren eta apoarmatu korrontezalearen habitata, eta eremu horretan baldintzatzaile gainjarri bat ezartzea, apoarmatu mehatxatuen kontserbazioa sustatzeko, non egin beharreko jarduketek edo eman beharreko lizentziek Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuari aldeztu aurretik kontsulta egin behar zaion. HAPOn Aurrerapenak eremu hori lurzoru urbanizaezinean zonifikatzen du balio estrategiko handiaren kategoriaren barruan, baina babes bereziko kategorian sartu beharko da, Mungia LPPk egiten duen bezala (*Ibarraren beheko tarte Gatikan eta Marurin*). Kategoria hori izan beharko du iparraldean dagoen kokagune txikiak ere, LPPan Bakioko kostaldearen barruan dagoena.

Era berean, kontuan hartu behar da LPPk udalerrriaren iparraldeko zatia (Jata mendiaren goraguneak) paisaia- eta aisialdi-intereseko eremu gisa (Arritabane-Jata-S. Migel-Tallu-Linebaso iparraldeko mendilerroa) zonifikatzen duela.

Sustatzaileak lurzoru urbanizaezinaren planoetako batean jasotzen duen azpiegitura berdearen proposamena gainjarritako baldintzatzailetzat ere hartu beharko da. HAPOn araudiak ezarritako diren gainjarritako baldintzatzaile bakoitzaren erregulazio zehatza jaso beharko du.

6.- ANÁLISIS AMBIENTAL DE LAS PROPUESTAS DEL PLAN GENERAL.

6.1.- Sobre la ordenación del suelo no urbanizable (SNU).

En la ordenación del SNU se tendrá en cuenta lo señalado por la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco en relación con la consideración del suelo agroganadero de alto valor estratégico.

Por otro lado, el Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia ha solicitado la inclusión de las (1) Áreas de interés especial establecidas en Plan de gestión del visón europeo, (2) de las manchas de bosque de galería, bosque mixto atlántico y bosques naturales de frondosas de elevado porte en torno a los cursos de agua y (3) de los hábitats de interés comunitario prioritario (Pastos mesófilos con *Brachypodium pinnatum* y Bosques aluviales de *Alnus glutinosa* y *Fraxinus excelsior*) en la categoría de Especial Protección del suelo no urbanizable.

Asimismo, ese Servicio de Patrimonio Natural considera necesario que el extremo meridional del municipio, delimitado al este por la carretera BI-2120, al oeste por la BI-2124 y al sur por el límite municipal, sean preservados de la urbanización, manteniendo su carácter de suelo no urbanizable por la importancia primordial al ser el hábitat del galápagos europeo y del galápagos leproso, y que en esa zona se establezca un condicionante superpuesto dirigido a promover la conservación de los galápagos amenazados, en donde las actuaciones a realizar o las licencias a conceder, precise de una consulta previa al Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral. El Avance del PGOU zonifica este ámbito en el SNU dentro de la categoría de Alto valor estratégico, pero habrá de incluirse en la categoría de Especial Protección, al igual que lo hace el PTP de Mungia (*Tramo bajo de la vega en Gatika y Maruri*). Esta categoría deberá tener también el pequeño enclave en la zona septentrional, incluido dentro del frente costero de Bakio en el PTP.

Debe asimismo tenerse en cuenta que el PTP zonifica la parte septentrional del municipio, (elevaciones del monte Jata) como un ámbito de Interés Paisajístico y de Esparcimiento (Cordal Norte de Arritabane-Jata-S. Miguel-Tallu-Linebaso).

La propuesta de Infraestructura verde que ya recoge el promotor en uno de los planos del SNU, habrá de considerarse también como condicionante superpuesto. La normativa del PGOU habrá de recoger la regulación concreta que obre en cada uno de los condicionantes superpuestos que se establezcan.



Basozaintzaren kategorian erabilerak arautzeko hazkuntza azkarreko espezie aloktonoen baso-landaketek ingurunean (paisaia, ur-ibilguak, lurzoruak, fauna, etab.) dituzten ondoreak aztertuko dira. Aurrekoaren harira, hala baleude, eraginak minimizatzeko aldera zehaztapenen bat ezartzeko aukera landuko da. Ekoizpenerako zuhaitz aloktonoen eta aloktonoen ehunekoari buruzko informazioa sartuko da. Gainera, kategorian horretako erabileren erregulazioan eta horien espazio-mugaketan, kontuan hartu beharko da Mungia LPPan basogintza-kategoriari buruz adierazitakoa. Kategorian horren barruan, *F.1 Basogintza mugatzailekin* eta *F.2 Basogintza produktiboa* bereizten dira.

6.2.- Proposatzen diren etxebizitza-hazkuntzak.

Ingurumenaren ikuspegitik, bizitegi-eskaintza zehaztea da edozein HAPO idazteko funtsezko erabakietako bat. Ingurumenaren babes handia lortzeko, funtsezkoa da, ingurumen-ebaluazioaren prozeduraren barruan, teknikaren eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren aukeren azterketa zorrotza proposatzea. Zorrotz aztertu behar dira planaren bidez bete beharreko beharrezkoak, aurreikusitako garapenak neurritzeko kanpokoak izan ez daitezkeen. Adibidez, etxebizitza gehiago eraikitzeko baliabide gehiago kontsumitu behar dira, lursail handiagoa okupatuko da eta, oro har, ingurumenaren eragin handiagoa izango du.

Lehenik eta behin, adierazi behar da udalerrian benetako etxebizitza-premia 118koa dela, LAGetan ezarritako metodologiaren arabera kalkulaturik, eta Mungia LPPan kalkulaturikoa arabera, 65koa dela 8 urteko epean.

Maruri-Jatabeko Udalak hasieran planteatutako proposamenak hiru aukera aztertzen ditu bizitegi-hazkuntzarako dagokienez, eta bakoitzak 153, 151 eta 142 etxebizitza ahalbidetzen ditu hainbat sektoretan. LAGek ezarritako gehieneko bizitegi-eskaintza 163 etxebizitzakoa da (dauden etxebizitzaren % 50). Hiru aukerak, kopuru hori errespetatuz, kopuru horretara nola hurbiltzen diren egiazta daiteke, maximoen proposamentzat har daitezkeelarik. Horri dagokionez, eta sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan adierazten denez, indarrean dagoen plangintzak ahalbidetzen dituen etxebizitzetatik 115 geratzen dira egikaritzeko hiri-lurzoruan, 85 lurzoru urbanizagarrian eta 4 lurzoru urbanizaezinean (landagunea), hau da, 204, hots, hasieran aurreikusitakoaren % 54,94 (364 etxebizitza). Beraz, indarreko plangintzak ahalbidetzen duen eraiki gabeko etxebizitzekin (204) LAGetan

En la regulación de usos de la categoría Forestal, se analizará la repercusión sobre el medio (paisaje, cursos de agua, suelos, fauna, etc.) de las plantaciones forestales con especies autóctonas de crecimiento rápido, analizando la posibilidad de establecer alguna determinación para minimizar dichas afecciones, si las hubiere. Se incluirá información sobre el porcentaje de vegetación arbolada de carácter autóctono y las alóctonas con fines productivos. Además, en la regulación de usos de esta categoría y en su delimitación espacial, habrá de tenerse en cuenta lo señalado en el PTP de Mungia al respecto de la categoría Forestal, dentro de la cual se diferencia entre *F.1 Forestal con Limitantes* y *F.2 Forestal Productivo*.

6.2.- Sobre los crecimientos residenciales planteados.

Desde el punto de vista ambiental, la determinación de la oferta residencial es una de las decisiones clave en la redacción de cualquier PGOU. Para conseguir una elevada protección del medio ambiente es fundamental, dentro del procedimiento de evaluación ambiental, plantear un análisis riguroso de alternativas, técnica y ambientalmente viables. Se deben analizar con rigor las necesidades existentes a dar respuesta por el planeamiento, evitando el sobredimensionamiento de los desarrollos previstos. Por ejemplo, un mayor número de viviendas a construir supone un mayor consumo de recursos, una mayor ocupación del territorio y, en general, mayores impactos ambientales.

En primer lugar, señalar que la necesidad real de vivienda del municipio calculada según la metodología establecida en las DOT es de 118, y según la calculada en el PTP de Mungia es de 65 en el periodo de 8 años.

La propuesta planteada inicialmente por el Ayuntamiento de Maruri-Jatabe analiza tres alternativas diferentes en cuanto a los crecimientos residenciales, posibilitando cada una 153, 151 y 142 viviendas en diferentes sectores. La oferta residencial máxima establecida por las DOT alcanzan las 163 viviendas (50 % de las viviendas existentes). Se puede comprobar como las tres alternativas, respetando esa cantidad, se aproximan a ella, pudiendo considerarse propuestas de máximos. En relación con ello, y tal y como se señala en la documentación aportada por el promotor, de las viviendas que posibilita el planeamiento vigente quedan 115 por ejecutar en el suelo urbano, 85 en el urbanizable y 4 en el no urbanizable (núcleo rural), es decir, 204, lo que supone un 54,94% de lo previsto inicialmente (364 viviendas). Por tanto, se comprueba como con las viviendas sin construir que ya posibilita el



ezarritako gehienekoa (163) aise gainditzen dela egiaztatzen da.

Erreferentzia gisa, adierazi behar da Mungia LPPk zortzi urteko aldirako 98 eta 195 etxebizitza arteko eskaintza zehazten duela, zehaztutako premiei harrotze-koefiziente bat aplikatu ondoren. Horrekin batera, udalerririk landa-izaera duela kontuan hartuta, uste da hirigintza-plangintzak bizitegi-eskaintza zenbatestean landaguneetan planteatzeko diren etxebizitzak sartu beharko lituzkeela.

Lurzorua biodibertsitate aberatseko habitata da. Horregatik, proposatutako jarduerak koherenteak izan behar dute Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 29.3 artikuluan ezarritakoarekin, hau da: *lurzorua zigitatzea edo artifizializatzea saihestuko da eta abandonatutako lursailen birgaitzea zein degradatuak leheneratzea sustatuko da*. Era berean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, *lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako azalerek, hiri garapen iraunkorraren printzipioarekin bat, udalerriko biztanle hazkundearen aurreikuspenekin proportzio egokia eta zuzena izan beharko dute, horiek duten harrera ahalmena kontuan hartuta*.

Aurrerakinean jasotako udalaren proposamenak errespetatu egiten ditu lurraldeko araudian etxebizitza kopuruari buruz zehaztutako mugak, baina LAGek muga bat ezartzen duten marjinaren barruan, aukera batzuk planteatu daitezke, gutxi gorabehera jasagarriak. Ildo horretan, sustatzaileak ase nahi dituen premiak justifikatu behar lituzke, 142-153 etxebizitza berri ahalbidetuz, egungo araudiak 204 eraikitzeko tartea ematen duenean oraindik, LAGetan ezarritako muga 163 izanik eta udalerririk benetako premiak izanik, 118ko eta 65eko LAGetan ezarritako metodologiaren arabera kalkulatu, LPParen arabera.

Horrekin guztiarekin batera, adierazi behar da lurzoru berrien okupazioa handitzen jarraitzen duten hirigintza-garapenak direla mugikortasun motorizatua areagotzen duten arrazoietakoa bat, neurri handi batean ibilgailu pribatuaren bidez asetzen dena. Alderdi horrek eragina du ingurumenean, eta lotura estua du klima-aldaketarekin. Bizkaiko Errepideen II. Lurraldearen Plan Sektorialak, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saila ingurumenaren aldetik ebaluatzen ari denak, aurreikusten du ez dela trafikoa handituko planaren hurrengo urtean, gaur egungoarekin alderatuta. Horretarako, helburu hori lortzeko beharrezko neurrietako bat da hirigintza-garapen neurritsu eta ez-hedakorrak planifikatzea. Maruriko HAPOn aurreikuspenak Bizkaiko Errepideen II. LPSaren aurreikuspenen eta irizpideen aurkakoak dira. HAPOK

planeamiento vigente (204), se supera con creces el máximo establecido en las DOT (163).

Como referencia, señalar que el PTP de Mungia determina una oferta para el periodo de ocho años de entre 98 y 195 viviendas, una vez aplicado un coeficiente de esponjamiento a las necesidades determinadas. Junto a todo ello, y dado el carácter meramente rural del municipio, se considera que el planeamiento urbanístico debiera incorporar en la cuantificación de la oferta residencial las viviendas que se plantean en los núcleos rurales.

El suelo es un hábitat de enorme biodiversidad. Por ello, las actuaciones propuestas tienen que ser coherentes con lo establecido en el artículo 29.3 de la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de conservación del patrimonio natural de Euskadi, que establece que *se evitará el sellado o artifizialización del suelo, y se potenciará la rehabilitación de los terrenos abandonados y la restauración de los degradados*. Asimismo, el artículo 14 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, establece que *las superficies clasificadas como suelo urbanizable deben guardar, conforme al principio de desarrollo urbano sostenible, adecuada y directa proporción con las previsiones de crecimiento poblacional en el municipio, considerando su capacidad de acogida*.

